

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2602

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –lur-zaintzako akordioetan barne hartutakoak– finantzatzeko laguntzen 2014ko deialdia, EAEren lurralde-eremuan.

Autonomia Estatutuaren 11.1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio ingurumenaren eta ekologiararen arloko Estatuko oinarritzko legeriaren exekuzioa garatzeko eskumena.

Aipatutako eskumena Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak gauzatzen du, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien funtzioak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren 2012ko abenduaren 17ko 20/2012 Dekretuaren 13.1.e) idatzi-zatian xedatutakoarekin bat etorritz.

Eusko Jaurlaritzak, 2011ko uztailaren 12an egindako bileran, hau onartu zuen, besteak beste: «Euskal Autonomia Erkidegoko III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014». Helburuak: aniztasun biologikoaren galera gerarazteko helburu estrategikoa, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea; horiek 5 helburu operatibotan eta 9 jardun-lerrotan banatzen dira, eta, horien artean, lurraldearen zaintza sustatzea jasotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorrak gai honi buruzko aurreikuspen zehatzik egiten ez badu ere, bertan dio eremu egonkor bat eratzen duela, zeinetan lekua baitute programak indarrean dirauen espazioan eta denboran biltzen diren eragile pribatuen jarduerak eta gobernu ezberdinen politikek, eta zeinek legeak ezartzen dituen helburuak lortzeko parte hartzeko ahala eta beharra baitute.

Bestalde, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Estatuko Legeak zaintza-akordioak aurreikusten ditu bere mekanismoen artean. Ildo horretatik, eta legeak ezartzen duenez, Herri Administrazioek zaintza-akordioak sustatuko dituzte zaintza-erakundeen eta natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzea helburu nagusizat duten jabego publikoko zein pribatuko lur-jabeen artean.

Azkenaldian, natura-ondarea kontserbatzeko bide eta tresna berriak sortzen ari dira, esaterako: biodibertsitatea kontserbatzeko lur-zaintzako akordioen mekanismoa. Tresna horien beste helburu garrantzitsu bat da bestelako eragileen parte-hartzea sustatzea biodibertsitatea kontserbatzeko (jabeak, gizarte zibila antolatua, herritarrak edota enpresa pribatuak).

Lur-zaintzak borondatezko akordio baten forma hartzen du, zaintza-erakundeen eta lurren jabe edo erabiltzaileen artekoa, edota zaintza-erakundeen eta baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen titularren artekoa. Honako hauek ezarri behar dira: indarrean izango den aldia; natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko egingo diren jarduerak; jarraipen- eta aholku-mekanismoak; eta laguntza tekniko eta finantzarioa.

Lur-zaintzako akordio baten xede diren finkak jabego pribatukoak izan daitezke, edo udalen herri-lurrak, enpresen jabetzakoak; era berean, baliabide naturalen aprobetxamenduaren gaineko eskubideak dituzten lurrak izan daitezke, haien titulartasuna gora behera. Zaintza-erakundeak honako hauek dira: natura-ondarearen kontserbazioan diharduten erakundeak, auzo-elkarteak, eragile sozialak, fundazioak, eta abar, betiere irabazi-asmorik gabeak; horien helburuen artean, gainera, biodibertsitatea kontserbatzeko ekintzak burutzea egongo da.

Horrela, agindu honen bidez, diru-laguntza eman nahi zaie biodibertsitatea kontserbatzea helburu duten jardunei, eta, horretarako, diru-laguntzak ematen dira aktiboki kontserbatzeko jarduerak burutzeko, baldin eta jarduera horiek lur-zaintzako akordioen barnean hartuta badaude.

Laguntzetarako deialdi berri honetan sartu den berrikuntzetako bat prozeduraren izapidetze elektronikoa da, hau da: diru-laguntzaren eskaera nahiz ondorengo justifikazioa baliabide telematikoen bitartez baino ez da egingo.

Deialdiaren kudeaketa baliabide telematikoak soilik erabiliz gauzatzeak aldaketa jakin batzuk dakartza, esate baterako: eskaera-inprimakia ez da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko, baizik eta egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri; halaber, ez da zenbait agiri aurkeztu beharrik egongo.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2013ko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuak ematen didan eskumenaz baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAEko eremuan natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jardunak, lur-zaintzako akordioetan bilduta daudenak, 2014. urtean diruz laguntzeko.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, lur-zaintzako akordioa hauxe izango da: lurren jabeak eta/edo erabiltzaileak natura-ondarearen eta haren elementuen kontserbaziora eta erabilerara erakartzeko teknika edo estrategia juridikoen multzoa. Hori guztia borondatezko akordioen bidez egiten da, hau da, aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen jabeen edo titularren eta zaintza-erakundeen arteko akordioen bidez. Lur-zaintzako akordioek diru-laguntza eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen eginda beharko dute, eta honako hauek jasoko dituzte: kideen edota parte hartzen duten erakundeen identifikazioa, indarraldia, eta agindu honen I. eranskinean ezartzen denarekin bat etorrira egin beharreko jarduerak.

3.– Zaintza-akordioek gutxienez bi ekintza bildu beharko dituzte: bata, eranskineko A.1 puntuan bildutako ekintzei buruzkoa, eta, bestea, berriz, eranskineko A.2 puntuko ekintzei buruzkoa –biak ere agindu honetakoak–. Akordioetan, halaber, jarraipen- eta aholkularitza-mekanismoak, aurreikusitako komunikazio-ekintzak eta laguntza tekniko eta finantzarioa ere jasoko dira.

2. artikulua.– Laguntzen izaera, zenbatekoa eta bateragarritasuna.

1.– Agindu honen arabera emandako laguntzak ez dira itzuli behar.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa lagungarri den gastuaren % 100era iritsi daiteke.

3.– Irabazi-asmorik gabeko erakunde bakoitzari gehienez bi jardueratarako eman ahal izango zaizkio diru-laguntzak, eta proiektu bakoitzarentzat eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa ez da 20.000 eurotik gorakoa izango.

4.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako diru-laguntzekin, salbu eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrekontu-zuzkiduren kontura emandakoak badira, eta, betiere, horrek gehiegizko finantziatorik ez badakar.

5.– Gehiegizko finantzazioa gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko gehienezko mugaraino murriztuko da.

3. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Agindu honen helburua betetzeko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xede horretarako berariaz ezarriko diren aurrekontu-kredituetatik hartuko dira.

2.– Helburu horretarako 160.000 euro bideratuko dira gehienez.

3.– Emango diren laguntzen bolumen osoa ez da zuzkidura horretatik edo berori handitzearen ondoriozko zuzkiduratik gorakoa izango, baldin eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren beste laguntza-programa batzuk betearaztearen ondoriozko edo indarreko legeriaren arabera onesteko moduko aurrekontu-aldaketen ondoriozko agortu gabeko aurrekontu-erabilgarritasunik badago, eta, betiere, diru-laguntzak ebatzi baino lehen.

4.– Handitze hori gertatuz gero, agindu honetan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura ebatzi baino lehenagokoa izan beharko da, eta horren berri emango da Ingurumeneko sailburuordearen ebazpen bitartez.

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzen onuradun izan daitezke irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak, lur-zaintzako erakunde bezala aritzen direnak, betiere agindu honetan zehazten diren jarduerak eta jardunak EAEren eremuan egiten badituzte lur-zaintzako akordioen bidez.

2.– Agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lur-zaintzako erakundetzat hartuko da bere estatutuetan berariaz jasotzen duena natura-ondarea kontserbatzen jarduten duela, betiere egiaztatzen badu bere jardueraren erdia gutxienez helburu horretara bideratzen duela.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin beharko dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak. Izapidetze elektronikoen prozesuak irauten duen bitartean erakunde eskatzaileek zailtasunen bat baldin badute, prozesu hori egiteko behar duten laguntza emango diete zerbitzu teknikoek.

2.– Izapidetze elektronikoa honako hauen bidez arautzen da: Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bidez, eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez.

3.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak egoitza elektronikoa honetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/lurraldea_zaintzea/y22-izapide/eu

4.– Eskaeraren ondorengo izapideak «nire kudeaketak» atalaren bitartez egingo dira <https://euskadi.net/nirekudeaketak>

6. artikulua.– Jarduera eta jardun finantzarriak eta diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzetara atxiki ahal izango dira eranskinean zehazten diren jarduerak eta jardunak, baldin eta lur-zaintzako akordioetan bilduta badaude eta agindu honen 1. artikuluko baldintzak betetzen badituzte. Jardun horiek EAEko lurralde-eremuan burutu behar dira.

2.– Lur-zaintzako akordioaren barne, agindu honen pean, diru-laguntza jaso dezaketen jardunak 2014ko ekitaldian egin direnak baino ez dira izango; betiere, 2014ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu eta bukatu behar dira.

3.– Agindu honetan jasotako araubidearen babesean diru-laguntza jaso dezaketen gastuak honako hauek izango dira: eskatzaileak aurkezturiko jardunaren aurrekontu xehatua jaso eta jardun hori betearazteari argiki lotuta daudenak.

4.– Ez dira diruz lagungarri izango edozein obra edo proiektu mota buruzetik eratorritako konterbazioko edo leheneratzeko proiektuak edo jardunak, neurri zuzentzaile edo konpentsatzaile gisa ezarrita daudenak.

5.– Zeharkako zergak, balio erantsiaren gaineko zerga eta beste batzuk ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, baldin eta berreskuratu edo konpentsa badaitezke.

6.– Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan –egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuta– artikulua honetan diruz laguntzeko modukoak ez diren gastuak biltzen badira, balioztatze-batzordeak desagerrarazi edo kendu egingo ditu, diruz laguntzeko moduko gastuen aurrekontua zenbatekoa den zehazteko; aurrekontu hori diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko oinarria izango da.

7. artikulua.– Entitate eskatzaileen baldintzak.

1.– Eskatzaileak, agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

2.– Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatua izatea, eta erakundearen helburuetako bat natura-ondarea kontserbatzea izatea.

3.– Egiaztatzea haren jardueren erdiak baino gehiago natura-ondarea kontserbatzeko helburu horrekin lotuta daudela.

4.– Jarduera edo jarduketa diruz lagungarria EAEn gauzatzea.

5.– Zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

8. artikulua.– Erakunde eskatzailearen zenbait betekizun egiaztatzea.

1.– Laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, behar den aldi guztietan, eta, horretarako, eskatzaileen baimenik zertan izan gabe, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Interesdunek Nafarroako Ogasunean ordaintzen badituzte zergak, zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 50.6 artikuluan xedatzen duenaren arabera, eskabidearekin batera aurkeztuko den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, honako betekizun hauek egiaztatuko dira:

- Beste edozein administraziok edo erakundek –izan publikoa zein pribatua– helburu bererako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri eman behar da.

- Pertsona edo erakunde eskatzailea administrazio- edo zigor-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela, edo diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez dagoela, ezta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuren baten eraginpean ere.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edo bukatuta dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozeduratan sartuta ez dagoela.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 51.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu ahal izango du honako betekizun hauek betetzen dituela:

- Diruz laguntzeko modukoa ez den gastua estaltzeko behar adinako finantza-gaitasuna duela.
- Ez dela helburu bererako diru-laguntzak jasotzen ari Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren aurrekontu-zuzkiduren kargura.
- Halaber, erakunde eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela diru-laguntza hauek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

4.– Diru-laguntzaren onuradunek, diru-laguntza ematea ebatzi aurretik, aurreko betekizunak frogatu beharko dituzte, eta, horretarako, dagokion ziurtagiria aurkeztuko dute, edo baimena emango dute organo kudeatzaileak zuzenean egiaztatu dezan.

9. artikulua.– Eskaerak eta inprimakiak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskaerak 45 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

2.– Eskaerak baliabide elektronikoen bitartez aurkeztuko dira euskadi-net-en egoitza elektronikoa (https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2014/lurraldea_zaintzea/y22-izapide/eu)

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, aukeran. Era berean, prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.– Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz, eskatzaileei jakitera ematen zaie aurkezten dituzten datuak fitxategi batean bilduko direla eta horren helburua izango dela diru-laguntzetarako deialdi hau eta arloari loturiko gainerako administrazio-espeditente guztiak kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza da, eta zuzendaritza horretan gauzatuko dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak; horretarako, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

10. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Eskaerari jarraian adierazten den dokumentazioa erantsi beharko zaio:

- «Deskribapen-memoria» inprimaki formalizatua. Hor, behar bezala zehaztutako moduan honako hauek adieraziko dira: jarduteko lekuaren planoa eta mugaketa; jarduna garatzeko epeak,

irismena eta garapena; jardueraren guztizko aurrekontua, partiden arabera banakatua; eta jarduna gauzatzeko egutegia.

- Zaintza-akordioa.
- Aurreko urteko jardueren memoria. Jarduera horiek erakundeak onartuak izango dira.
- «Aurrekontua» inprimaki normalizatua.

Era berean, diru-laguntzaren xede diren jarduerak egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak izapidetu eta lortu beharko dira jarduerak egin aurretik, bai eta udalaren hirigintza-lizentzia, eta, hala badagokio, eskumena duen edo duten sektore-administrazioaren edo administrazioen derri-gorrezko baimenak eta lizentziak ere.

11. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Eskabidea jaso ondoren, ikusten bada aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituela, edo diruz laguntzeko jarduna hobeto ezagutzeko dokumentazio osagarria behar dela irizten bada, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak eskatuko dio eska-tzaileari hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko; hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. arti-kuluan ezarritakoaren arabera emango den ebazpenaren bidez.

12. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko ardura duen organoa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak egingo ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lanak.

13. artikulua.– Balioztatze-batzordea.

1.– Aurkezturiko eskabideak aztertzeko, ebaluatzeko eta aukeratzeko, Balioztatze Batzordea osatuko da, eta honako kide hauek izango ditu:

- a) Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.
- b) Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzara atxikitako teknikari bi, eta horietariko batek idazkari jardungo du.

Proposamenak ebaluatzeko, natura-ondarearen kontserbazioan diharduten beste teknikari edota aditu batzuen iritzia jaso ahal izango da.

2.– Eskabideak ebaluatu ondoren, Batzordeak Ingurumeneko sailburuordeari bidaliko dio ebazpen-proposamena; horrek, hurrengo artikuluan adierazitako esleipen-irizpideetara eta aurre-kontu-mugetara egokituta, diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak eta diru-laguntza horren zenbatekoa adieraziko ditu; gainera, proiektu bakoitzari emandako laguntza-portzentaia eta onura-dunen izenak ere zehaztuko ditu. Era berean, haren ustez baztertu beharko liritekeen proiektuak eta horren zergatia adieraziko ditu.

14. artikulua.– Diru-laguntzak emateko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Agindu honetako laguntzak lehiaketa prozeduraren bidez emango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onetsi zen lege hori). Proiektuak balioztatzeko fasean kalifikazio-epaimahaiak emandako puntuazioa kontuan hartuta gauzatu da lehiaketa.

2.– Horri dagokionez, diru-laguntzak emateko, jarraian adierazten diren baldintzak eskabidean betetzen diren ala ez balioztatuko da. Gehienez ere ehun (100) puntu lor daitezke, irizpide hauen arabera banatuta:

a) Jarduera non gauzatuko den, 35 puntu, gehienez:

- Natura 2000 Sarearen eremuetan kokatutako lursailak: 35 puntu.
- Babestutako beste espazio natural batzuetan kokatutako lursailak: 30 puntu.
- EAEko hezeguneetarako LAP Lurraldearen Arloko Planaren II. eta III. taldeen hezeguneetan sartuta dauden lursailak: 25 puntu, gehienez.
- Aurreko ataletan sartuta ez dauden lursailak, baina Batasuneko intereseko flora eta fauna basatiko espezieak dituztenak, hegaztien eta habitataren gaineko Zuzentarauaren eranskinean direnak edo flora eta fauna basati mehatxatuen euskal katalogoan direnak: 20 puntu, gehienez.

Jardun-eremu baten gainean hainbat kalifikazio egiten baldin badira, puntu gehien duena baliozkotuko da.

b) Lur-zaintzako akordioaren denbora: puntu 1 emango da akordioak irauten duen urte bakoitzeko: 20 puntu, gehienez.

c) Proposaturiko ekintzek natura-ondarea kontserbatzeko duten ahalmena: 45 puntu, gehienez:

- Egitasmoaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna, natura-ondarea eta paisaia kontserbatu, leheneratu eta hobetzeari egiten dion ekarpenaren arabera: 30 puntu, gehienez.
- Jarraipen-plangintzaren kalitate teknikoa eta proiektzioa: 10 puntu, gehienez.
- Komunikazio- eta zabalkunde-jarduerek gizartean duten eraginaren ahalmena: 5 puntu, gehienez.

3.– Artikulu honetako 2. zatian jasotako balioztatze-irizpideei jarraituz eskabideen lehen-tasun-ordena ezarri ondoren, laguntzak puntuazio-hurrenkerari jarraituz esleituko dira, agindu honen 3. artikuluan ezarritako diru-kopurua agortu arte.

4.– Balioztatzean, orotara berrogeita hamar (50) puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak ez dira diruz lagunduko. Agindu honetan ezarritako prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean, hala badagokio, jasoko egingo da aipatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren proiektuen zerrenda.

5.– Erakunde bakoitzak bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta proiektu bakoitzak helburu desberdina izango du.

6.– Ebazpen-proposamenean, erakunde onuradunen zerrenda eta diruz lagunduko diren proiektuen eta, orobat, emandako zenbatekoen zerrenda jasotzeaz gain, ordezkotuen zerrenda ere jasoko da, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkotuen jo ahal izateko –balioztatzean, 50 puntu edo gehiago jaso badute, betiere. Erakunde horiei dagokienez, ordezkotuen egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira, proiektuak adieraziko dira, eta, onuradunak uko eginez gero, ordezkotuen laguntzak izan lezakeen gehieneko zenbatekoa azalduko da; nolana ere, zenbateko hori ez da sekula ere izango aurrekontuetan onartutakoa baino handiagoa.

15. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Aurkezturiko eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira; prozedura hori, interesdunak planteaturiko gai guztiak erabakita, Ingurumeneko sailburuordeak ebatziko du.

2.– Ebazpen horren bidez, eman edo hala balegokio, ukatu edo kanporatu egingo dira agindu honetan ezarritako laguntzak. Ematen baldin badira, honako hauek adieraziko dira: onuraduna zein den; emandako laguntza zenbatekoa den; eta diru-laguntza zein proiekturi eman zaion, diruz lagundutako jardunaren zenbateko osoa zehaztuta. Jardunak baztertzen badira, horren zergatia adieraziko da.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, berorren aurka, interesdunek gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari; hilabeteko epea izango dute horretarako, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Ebazpena jakinarazpen telematikoz adieraziko zaie interesdunei, Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren V. Tituluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta jakinarazpen hori egindakotzat joko da pertsona edo erakunde interesdunak, edo, hala badagokio, horren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak jakinarazpena jaso izana elektronikoki izenpetzen duenean. Hala, jakinarazitako egintza jaso izana elektronikoki izenpetu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kasuan-kasuan ezarri beharreko epeak. Halaber, 21/2012 Dekretuan aipatutako helbide elektronikoa egintza jakinarazten den egunetik aurrera hamar egun naturaleko epean, pertsona edo erakunde interesduna, edo, hala badagokio, horren legezko ordezkaria edo baimendutako pertsona, jakinarazpenaren edukian sartzen ez bada, jakinarazpena errefusatu egin duela ulertuko da, izapidea egindakotzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du, non eta, ofizioz edo pertsona edo erakunde hartzailearen eskariz, ez den egiaztatzen oztopo tekniko edo materialak direla-eta ezinezkoa izan dela edukian sartzea. Gainera, jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, horren berri denek izan dezaten.

5.– Prozedura ebazteko eta ebatzitzakoa interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hori igaro eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpenik argitaratu ez bada, interesdunek diru-laguntzetarako eskabidea ezetsi egin zaiela ulertuko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.– Agindu honetan jasotako laguntzak onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan hasitako edozein itzulketak edo zehapen-prozedura amaituta egotea.

16. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte, eta, denak edo baten bat bete ezean, agindu honen 21. artikuluan jasotako prozedura ezarritako da:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntzaren esleipena EHAA-n argitaratzen den egunetik aurrera hamabost eguneko epean onuradunek berriaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Laguntzaren edo diru-laguntzaren helburua betetzea.

c) Laguntza edo diru-laguntza jaso duen proiektua gauzatzea.

- d) Laguntza edo diru-laguntza ematearen ondorioz ezarritako baldintzak betetzea.
- e) Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, eta jarduera burutu dela eta helburua bete dela ere justifikatzea, diru-laguntzaren emakida edo gozamina horren arabera baita. Horretarako dagokion memoria aurkeztu beharko da.
- f) Lehendik alta emanda ez badago, hirugarrenen alta ematea eskatzea.
- g) Agindu honen babesean jasotako diru-laguntzari dagokionez, organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko finantzako eta kudeaketako gainerako egiaztapen- eta kontrol-jardun guztiak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi berezian ezarritako guztiak onartzea ere.
- h) Aurreko paragrafoan aipaturikoei laguntzea egiaztapen- eta kontrol-jardunen garapenean, jardun horietarako eskatzen den informazio guztia emanez; horretarako, hauxe onartuko da:
- Sarbide librea egiaztatu beharreko agirietara, informatika-euskarria duten programa eta artxi-boetara barne.
 - Sarbide librea diruz lagundutako jarduera gauzatzen den lekuetara, edo laguntzaren edo diru-laguntzaren kontura finantzaturiko eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera.
 - Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, horietan laguntza edo diru-laguntza ez dela zuzen lortu, gozatu edo bideratu dela ondorioztatuz gero.
 - Sarbide librea laguntzak edo diru-laguntzak kobratzeko edo fondo-hornidurak egiteko finantza-erakundearen kontuetan dagoen informaziora.
- i) Jasotako fondoaren aplikazioa justifikatzen duten agiriak gorde egingo dira, agiri elektronikoak barne, harik eta horren inguruko egiaztapeneko eta kontroleko jardunak egin ahal izan arte.
- j) Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintza-aren Zuzendaritzari jakitera emango zaizkio helburu bererako emandako bestelako laguntza edo diru-laguntzak lortu izana (finantzakoak nahiz materialak), laguntza horien organo-emailea eta zenbatekoa, edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk emanak izanik ere; hamar egun baliouduneko epea egongo da horretarako, inguruabar horren berri izan eta biharamu-netik hasita.
- k) Organo horri, bestalde, diru-laguntza emateko aintzat harturiko edozein inguruabar objektiboren edo subjektiboren aldaketa jakinaraziko zaio, aurreko paragrafoan adierazitako epean.
- l) Jasotako fondoak, edo gauzaturiko jardunerako nahiz jarduerarako emandako diru-laguntzaren kostuaren gaineko soberakina itzuli egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan jasotako kasuetan.
- m) Jarduerak sorrarazitako dokumentu orotan, eta baita iragarki guztietan ere, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren babesari buruzko aipamen bat sartu beharko da Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_c.htm).
- n) Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari lagatzea, dohainik eta ez modu eskusiboan, aurkeztutako dokumentuan biltzen den informazio teknikoa eta grafikoa, administrazio horrek erabiltzeko eta haren informazio-sistemetan sartzeko, baita informazio hori hedatzeko eta/edo argitaratzeko

bibliografia-arloko, ikus-entzunezkoen arloko, informatika-arloko edo teknika hori erabiltzea ahalbidetzen duen edozein baliabide eta formatutan, betiere egile-eskubideak errespetatuz, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, eta, orobat, uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritakoa betez –lege horrek ingurumen-gaiei buruzko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen ditu– (2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentarauak barne hartzen ditu).

o) Diru-laguntza hau aplikatzearen ondorioz sortzen diren lanen ondoriozko dokumentuak, materialak eta datu-baseak eman beharko dira, «Ingurumenari buruzko informazioa tratatzeari eta entregatzeari buruzko argibideetan» eta «Informazio geografikoa entregatzeko jarraibideetan» ezarritakoa kontuan hartuta. Bi dokumentu horiek eskuragarri daude hemen: Geoeuskadi/docu-mentación/normativa datos GIS.

p) Hedapen-euskarrietan ezin izango da hizkuntza edo irudi sexistarik erabili (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua), baldin eta jardueretarako publizitatea edo material didaktikoak egiten badira. Zuzenean sortzen dituzten dokumentuetan ere hizkuntzak inklusiboa izan beharko du.

q) Erakunde onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte nahitaez diruz lagundutako jarduerak argitaratzean, iragartzean eta horiei buruzko publizitatea egitean.

r) Eusko Jaurlaritzak antolatutako jardunaldietan parte hartzea esperientziak eta zaintza-proiektuak hedatzeko edo trukatzeko, horrelakorik erabakitzen bada.

17. artikulua.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

1.– Baldin eta jardunaren behin betiko kostua txikiagoa bada laguntza ematean aurreikusitako aurrekontuan jasotakoa baino, emandako diru-laguntzaren zenbatekoari behar den ehunekoak murriztuko zaio. Orduan, diru-laguntzaren zenbatekoa oinarri berrian aplikatuko da.

2.– Aldiz, hasieran aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa handitzen bada, ebazpen-proposamenaren fasera iritsi aurretik soilik sartu ahal izango da aldaketa hori prozeduran. Gorantz zuzendutako aurrekontu bat geroago aurkezteak (jardun-kostuetan izandako hazkundeak kontuan hartzeko) ez du emandako laguntzaren hazkunderik eragingo, eta hurrengo artikulua ondo erretarako baino ez da aintzat hartuko.

18. artikulua.– Proiektuak aldatzea.

1.– Hasieran ezarritako eta ebazpenaren bidez onartutako gastuei edo jardunei dagokienez, egin nahi den edozein aldaketa jarduna egin orduko eskatu beharko da, eta Ingurumeneko sailburordearen berriazko onarpena beharko du.

2.– Aldaketak ez du inola ere eraginik izango jardunaren izaeran.

3.– Organo eskudunak onartu egin dezake aurkezturiko justifikazioa, baldin eta diru-laguntzaren onuradunak justifikazioan agerian uzten badu emakidarako aintzat hartutako baldintzetan aldaketak egon direla eta aldaketa horiek ebazpena aldatuko zutela, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.12 artikuluzatian ezarritakoaren arabera, eta ez bada bete onespenerako aurretiazko administrazio-baimenaren izapidetzea, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

4.– Organo emaileak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez du onuraduna salbuesten izan litzakeen zehapenetatik.

19. artikulua.– Justifikazioa, likidazioa eta ordainketa.

1.– Ematen diren diru-laguntzen ordainketa bi libramenduren bitartez gauzatuko da: % 50, diru-laguntza ematen denean, eta, gainerako % 50a diru-laguntza jaso duen jarduna benetan egin dela, helburuari egokitzen zaiola eta kostua lehendik adierazitakoa dela egiaztatu ondoren.

2.– Pertsona onuradunek honako hau aurkeztu beharko dute 2015eko martxoaren 31 baino lehen, <https://euskadi.net/misgestiones> gunearen bitartez:

a) Diruz lagundutako ekintzak gauzatu direla azaltzen duen deskripzio-memoria. Han, zehaztu egingo da zein diren jardueraren ezaugarri nagusiak eta zenbateraino bete diren jardunaren helburuak.

b) Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak.

c) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda, betiere zehaztuz, hala badagokio, beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk jaso direla helburu bererako; horrez gain, eta hala badagokio, adieraziko da eskabidea aurkeztu den diruz laguntzeko moduko programetan BEZa diruz lagundu daitekeen ala ez.

3.– Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, ikuskapen horren egiaztapenetan nahiz emaitzetan eta aurkezturiko dokumentazioan oinarrituz, likidatu egingo du diru-laguntza, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariak emandako ebazpenaren bidez.

4.– Halaber, ordainketa izapidetzen ari den garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan emandako diru-laguntzetakoren bat eskuratu dutenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruz Ogasun eta Finantzetako sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan ezarritako egoeretakoren bat gertatzen denean, orduan, agindu hone-tako 6. artikuluan e) idatzi-zatian ezarritako eran egingo da egiaztapena.

20. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko aintzat harturiko baldintzak aldatuz gero, diru-laguntzaren helburua bete dela irizten bada, eta beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen diru-laguntzak nahiz laguntzak lortuz gero, aldatu egin daiteke diru-laguntza emateko ebazpena, baldin eta agindu honetan diru-laguntzaren jasotzaile izateko ezarritako baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak dagokion ordainketa-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren kopurua doitu egingo da, edota, hala dagokionean, jasotako gehiegizko zenbatekoak itzultzeko eskatuko da.

21. artikulua.– Ez-betetzeak.

Laguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako kasuren batean sartzen badira (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen Testu Bategina), edo agindu honetan, gainerako arau aplikagarrietan nahiz emakida-ebazpenean ezarritako edozein baldintza urratzen badute, Ingurumeneko sailburuordeak ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidearen galera adieraziko du, interesdunari bidezko entzunaldia egin ondoren, eta gainera, jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra ere ezarriko du, hargatik eragotzi gabe bidezko gainerako ekintza guztiak aplikatzea, betiere abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta

itzulketen jardunbide orokorra arautu eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, araubidea eta obligazioak ezartzen dituen) Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, legezko ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Ordezko araubidea.

Agindu honetan berariaz ezarrita ez dagoen guztian, honako hauetan jasotako xedapenak izango dira aplikagarriak: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, aginduaren jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 3a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

ERANSKINA

A.– Jardun zehatzak.

Diruz laguntzeko modukoak izan daitezkeen jardunen zerrenda. Proposamen bakoitzak gutxienez bi ekintza bildu beharko ditu: A.1 eranskineko ekintzetako bat, eta A.2 eranskineko ekintzetako bat:

A.1.– Natura-ondarea kontserbatzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jardunak (ezinbestekoa da gutxienez idatz-zati honetako jardun bat sartzea, laguntzak eskuratu ahal izateko)

– Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) kontserbatzeko neurriak biltzen dituzten dokumentuetan txertatutako jardunak (dagoeneko onartuta daudenak nahiz gaur egun izapidetze-fasean daudenak).

– Flora edo fauna basati mehatxatua (Europako Erkidegokoa edo eskualdekkoa) kontserbatzeko jardunak.

– Espezie autoktonoek eraturako basoak edo arboladiak ezartzea, zabaltzea, leheneratzea edo hobetzea. Lehentasuna emango zaie lehendik dagoen arboladi aloktonoa ordezkatzeari eta Europako edo eskualdeko intereseko habitaten kontserbazio-egoera hobetzeko jardunei.

– Ekotonoak sortzea baso-masen nahiz larreen ertzetan, orla-zuhaitzak eta -zuhaixkak landatuz.

– Gutxienez 10 metroko zabalerako landaketa babesleak, konektoreak eta/edo ur-bazterreko landarediaren landaketak (haltzadiak, lizardi/sahastiak edo zurzuridiak) egitea ur-ibilguetako banda babesleen barruan, edozein izanik ere ur-ibilgu horiek dauden lekua (larreak, lur landuak, basoak, errepide-ertzak). Eukalipto- eta pinu-sailen zabaleraren lehenengo 10 metroak gutxienez ibarbaso bihurtzea jasotzen da bereziki, jardun honetan.

– Putzuak, ur-puntuak eta hezeguneak jartzea baso-orbanekin eta landazabal-eremuekin lotuta.

– Alde hezeak leheneratzea eta/edo berreskuratzea hezeguneekin eta/edo hezegune bihur daitezkeenekin lotutako lekuetan, esate baterako: leku endorreikoak, amildegia, sakonuneak, eta abar.

– Flora-ale exotiko inbaditzaileak kentzea, baldin eta egiaztatuta badago ekosistema autoktonoen osotasuna mehatxatzen dutela.

– Baso-pistak leheneratzea, lursaila nabarmenduz eta bertako espezieak landatuz.

– Itxitura perimetralak jartzea leizeetan eta barrunbeetan.

– Palaxuak sortzea giro atlantikoko edo mediterraneanarreko berezko bertako espezieak (dagoenaren arabera) erabiliz.

– Mugako lurretako eta ezpondetako berezko landaredi naturala berreskuratzea.

– Landareztatutako ildo-bizkarrak egikaritzea lehorreko lur landuen artean, mediterraneanar giroetan.

– Ureztapen-putzuak fauna basatiaren kontserbazioarekin bateragarri egitea.

– Itxitura iragazgaitzen eta txarrantxa-hesien ordez itxitura bigunak jartzea. Espezieak modu librean ibiltzea ahalbidetzen duten elementuak jartzea baltsaren eta kanpoaldearen artean.

A.2.– Jarraipena egiteko jardunak (ezinbestekoa da gutxienez idatzi-zati honetako jardun bat sartzea, laguntzak eskuratu ahal izateko).

– Lur-zaintzako akordioaren eremuko biodibertsitatearen elementuen inbentarioa egitea.

– Proiektuaren helburuei eta ekintzei jarraipena egiteko eta haiek ebaluatzekeo programa.

– Salbuespen gisa, ekipamenduak erostea inbentariorako datuak lortzeko edo jarraipena egiteko, betiere egiaztatzen bada ekipamendu horiek ezinbestekoak direla proiektuaren ekintzak betetzeko.

I.A.3.– Komunikazio-jardunak (zerrenda orientagarria).

– Lur-zaintzako akordioan bildutako lursailen balio naturalistikoari buruzko eta proiektuaren ekin-tzei buruzko material didaktikoa egitea.

– Seinaleztapena.

I.B.– Baldintza bereziak.

– Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango Europako intereseko habitataren ordeztu beste mota bateko landare multzo bat jartzeko jardunak, salbu eta behar bezala justifikatzen bada leheneratu-tako habitat berriaren kontserbazio-balioa handiagoa dela.

– Erabili beharreko landareek eta haziek baso-espezieen alorrean indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak beteko dituzte une oro, bai eta dagozkion proiektuek eta memoria teknikoek ezarritako ezaugarri guztiak ere. Jardunetarako erabiltzen diren landareek bermatuko dute jatorri genetiko bermatua duten hazitik datozela, eta hazi horien jatorria ahalik eta hurbilen egongo da jarduna gauzatuko den eremutik.

– Landareen gutxienera adina eta dimentsioak ez ezik, sailaren dentsitatea ere aurkeztutako proiektuan edo memoria teknikoan jasoko dira. Komenigarria da eremu landatu trinkoak egitea ale gazteekin.

– Ibai-ibilgurekin muga egiten duten lursailetan egin beharreko leheneratzeetan laguntzak jasotzeko baldintza gisa ezartzen da ezinbestekoa dela ibai-ertzaren ondoan gutxienez lehenengo bost metroak, ibilguaren bi aldeetan, inguruneko landaredia naturalaren berezko urbazterreko baso-espezieekin landareztatzea; era berean, komenigarria da lehendik zegoen landaredi autoktonoa errespetatzea.

– Nekazaritza-matrizean murgilduta dauden isurialde mediterraneoko erreka txikien ertzak urtaroko ur-fluxuarekin landareztatzekeo jardunen kasuan, eremu landatuaren gutxienera dentsitatea 1-2 izerditako 1.500 landare/ha izango da. Espezieen % 5-10 eremuko bertako zuhaitz-espezieak izango dira; gainerakoak, berriz, zuhaixka-espezieak izango dira, ahal bada elorri zuriak eta arrosa-landareak. Bermatu beharko da ur-baliabideak mantenduko direla.

– Espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztekeo jardunei dagokienez, erabiliko den metodologiak bermatu beharko du ez dela afektazio negatiborik sortuko ingurunekeo ekosistemetan eta biodibertsitatekeo beste elementu batzuetan.

– Putzuak eta ur-puntuak sortzekeo jardunei dagokienez, gutxienera edukiera azaleraren 50 m³-tik eta 50 m²-tik gorakoa izango da. Bazterren malda % 5-10etik beherakoa izango da, eta perimetroaren laurdenak ez du landaririk izango. Putzuen ertzen 2/3k gutxienez 30-40 cm-ko sakonera eduki behar du ertzetik 3 metrora. Eremuan abere-zama Azienda Larri Unitate (AzLU) 1etik gorakoa denean, putzura sartzeko mugak ezarri beharko dira.

– Leize eta barrunbeetan itxitura perimetralak jartzeko, itxiturak leize edo barrunbearen ahotik gutxienez 15 metrora jarriko dira. Behealdean 30 cm-ko garaierako eta 50 cm-ko luzerako tartekak utziko dira, fauna basatiaren iragazkortasuna bermatzeko.

– Ureztapen-putzuak fauna basatiarekin bateragarri egiteko proiektuetan, putzuaren perimetroaren erditik hiru laudenera bitarteko eremua berezko espezieekin landareztatu beharra jaso beharko da. Gutxieneko dentsitatea: 1.500 landare/ha, eta, eremuko berezko zuhaitz-espezieen % 5 gutxienez.

– Sortuko diren palaxuek bi metrotik lau metrora bitarteko zabalera izango dute gutxienez, eta landare-dentsitatea, berriz, 1-2 izerditako 900 landare/ha-koa izango da, gutxienez; horrez gain, eremuko berezko zuhaitz-espezieen % 10-15 bildu beharko da gutxienez.